

AITA EMILIANO BARANDIARANEN BIZITZA (1904-1967)

1. JAIOTZE BATEN MENDEURRENA (1904-2004)

Jaiotze baten mendeurrena ospatzea oroitzapenezko saritzat jo izaten dugu, halakorik egiteko arrazoirik izateak gogoratzen den pertsonak bere bizitzan aparteko zerbait egin duela adierazten duelako. Esku artean dugun kasu honetan, bereziki bi arrazoiengatik nabarmendu zen Aita Emiliano karmeldar umilaz dihardugu. Bera idazle eta musikaria izateari, bestelako ukitua ematen dio komentu barruan jardun izanak. Aldi berean, Aita Emilianoren jaiotzaren ospakizuna egitea *Karmel* aldizkari honetan haren bizitza eta lanari buruzko xehetasun batzuk emateko aukera ere badugu¹.

Aita Emilianok asko idatzi eta itzuli bazuen ere, gutxi idatzi da, orain arte, berari buruz. Egia esan, beraren heriotza ostean -gogora dezagun 1967ko abenduaren 13an hil zela-, hainbat

¹ Laburdura hauek erabiliko ditugu: GPKA (Gasteizko Probintziko Karmeldarren Artxiboa), LKA (Larreako Karmeldarren Artxiboa), KTAOR (Karmeldar Teresiarren Artxibo Orokorra, Erroma), MAHN (Madrileko Artxibo Historiko Nazionala), MKA (Markinako Karmengo Artxiboa); BOPSN (Boletín Oficial de la Provincia de San Joaquín de Navarra), Correspondencia ("Correspondencia epistolar del Exmo. Sr. Cándido Gaytan de Ayala con los Padres Carmelitas y otros personajes sobre la Restauración carmelitana de 1868..." Villafranca-ko egungo Kondearen jabetzaean daude, Donostia), Karmeldarrak Markinan (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan, 1691-1991. Historia eta agiriak*. Larrea-Zornotza, 1992).

artikulu argitaratu ziren. Horietariko bi Aita Emilianoren bizitza eta lanaren zuzeneko lekukotza ematen zuten artikulu laburrak izan ziren. Bata, adiskide izan zuen Aita Jose Domingo karmeldar musikariarena: JOSE DOMINGO UGARTECHEA DE STA. TERESA, *In memoriam del P. Emiliano del Niño Jesús. O.C.D., Txitulari* aldizkarian (1968, 53.zk.) 6-8 or. Bestea, Aita Emilianoren hil zenean Markinako komentuko priorea zenak idatzia: MIGEL MARI, *Rdo. P. Emiliano del Niño Jesús (1904-1967), Boletín Oficial de la Provincia de San Joaquín de Navarra* izeneko aldizkarian (1988) 547-551 or.² Horiez gain, beste bi aipamen gehiago ere agertu ziren, laburragoak baina edukiz beteak: N. ALZOLA, *Aita Emilianoren Barandiaran*, BRSVAP 24. zk. (1968) 116-118. or.; eta, oraindik laburragoa, J. SAN MARTÍN, *Julian Barandiaran Kortazar "Aita Emilianoren" (1904-1967)*, Euskera aldizkariaren 13. zk.an (1968) 282 or.

Askoz geroago Aita Emilianoren bizitza eta lanari buruzko beste bi aipamen labur agertu ziren. Lehena, Aita Onaidiak idatzia (*Euskal Literatura*, 5.t., Bilbao, 1977, 317-322 or.); eta, bigarrena, Julen Urkizak argitaratua (*Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, Larrea-Zornotza, 1992, 422-424, 463-464, 470-471 or.).

Argitalpen xume horiek Aita Emilianoren bizitzaren historia osatuagoa idazteko laguntza handia eskaintzen digute. Badira, bestalde, beste hainbat agiri interesgarri, Aita Emilianoren berak bildu eta gordetakoak, eta gaur egun Markinako Karmeldarren komentuan gordetzen direnak. Azken horiek izango dira gure biografia honen oinarri nagusiak: 1) 33 karpeta: haren euskarazko zein gaztelaniazko lanak biltzen dituztenak nahiz komentuen barruan egin zituen jarduketari berri eman eta komentuko bizimodua, hau da, jai-ekitaldiak, kultur jarduerak, gutunak, hitzaldiak, eta abar jasotzen dituztenak. 2) Haren bizitza

² Egile berak "Libro de los Religiosos que han fallecido en este Convento de Marquina desde el año de 1872" liburuan idatzitako ia testu herbera da, 89-95. or. (MKA, A-XII-1).

osoari buruzko jatorrizko hainbat dokumentu: bataio-ziurtagiritik hasi eta 1967ko abuztuaren 4an "*Euskarazaleak*" elkarteak elkarteko kide izendatu arte gertatutakoak jasotzen dituztenak. Dokumentu horiek hari zuriz jositako koaderno batean daude bilduta eta koadernoak A-I-10 aipamena du idatzia. 3) Balio historiko nabarmenak adierazten dituzten lau argazki-album. 4) Bestetik, Gasteizko Karmeldarren artxibo probintzialean ere badira Aita Emilianori buruzko dokumentu batzuk.

2. ESKORIATZAN JAIOA

Gure idazle eta musikaria Bolibarreko Olagoiti (Eskoriatza, Gipuzkoa) baserrian jaio zen 1904ko martxoaren 9an, berak gordeta zituen agirien artean aurkitu dugun bataio-ziurtagirian irakur daitekeenez³. Eskoriatzan jaioetako Zakarias Barandiaren



Eskoriatzako eliza

³ MKA, A-V-10.

Larrañaga nekazariaren eta Bolibarren jaiotako Cipriana Cortazar Echevarria anderearen semea zen. Biharamuncan, hilaren 10ean, bataiatu zuten Bolibar-Ugazuako San Migel goi-aingeruaren elizan, Julian izena jarritz. Zortzi neba-arrebetatik zazpigarrena zen⁴. Ume txikia zela, familia osoarekin batera Apotzara joan behar izan zen bizitzera, *Sakristaukua* izeneko etxera.

Lehen ikasketak Bolibarren eta Eskoriatzako eskola nazionalen egin zituen. Zortzi edo bederatzi urte zituela, akolito-lanetan jardunez baserrietara joaten laguntzen zituen erlijiosoen antzeko bizimodua egiteko gogoia piztu zitzaion. 1916ko irailaren 5ean Nafarroako Alesbeseko (Villafranca de Navarra) karmeldarren ikastetxean sartu zen, bertan, lau urtetan zehar, humanitate ikasketak eginez. Baina urrats hori eman aurretik San Migel Goi-aingeruaren elizako parrokoak haren jokabide onari buruzko ziurtagiria idatzi zuen (1916-IX-4an) eta Julianen gurasoek ikastetxe horretara joateko baimena eman zioten (1916-IX-5ean) (5-IX-1916)⁵.

3. KARMELDARRA ETA IKASLEA

Batxilergoko ikasketak amaitutakoan, Julian Barandiaran, karmeldarra izateko bokazioari jarraituz, Larreako nobiziotegian sartu zen. 1920ko uztailaren 28an hartu zuen karmeldarren abitua eta ondoren urtebete eman zuen bokazioa argitzen eta Karmeldar Teresiarren Ordenan hasierako urratsak ematen, horrela otoitz egin eta nobiziotegiko bizimodua eta Ordenako tradizioak ikasiz. Urte hori amaitzerakoan erlijiosoen bizitza aukeratu zuen, horretarako hiru botoak -menpekotasuna, kastitatea eta txirotasuna- eginez 1921eko uztailaren 29an. Orduko ohiturari jarraituz izena aldatu eta "Emiliano del Niño Jesús"

⁴ MKA, A-V-10 (dok. originala).

⁵ MKA, A-V-10 (dok. originala).

izen berria hartu zuen⁶. Hiru urte geroago (1925-III-9an) berretsi egin zuen erlijiosoa izateko promesa⁷; eta, geroago, 1927ko azaroaren 24an, Begoñako Karmeldarren Etxean bizitza osorako boto nagusiak egin⁸.



Larrea

Larrean botoak egin ostean, Markinan “irakasle urtea” deitzen zen urtebeteko egonaldia (1921-1922) egin zuen; jarrian Gasteizera joan zen, filosofiako hiru urteko ikasketak egitera. Gasteizen Filosofiako lehenengo urtean 9 ikasle-lagun izan zituen; denek gaitutuko zuten ikasturtea, portaerari nahiz ikasketa-errendimenduari dagokienez, eta horren lekuko Aita Probintzialak eta ikasleen arduradunek 1923ko ekainaren 26an

⁶ MKA, A-V-10 (dok. originala); ikus ere LKA, A-XVIII-2: *Liber professionum simplicium*, 1897-1927, p. 389.

⁷ MKA, A-V-10 (dok. originala).

⁸ MKA, A-V-10 (dok. originala).

Cum iuxta Constitutiones nostras, ter Capitulo propositis, approbatus fuerit, et iuxta Codicem Juris Canonici, sui negotiatus unum perfecterit, in Ecclesia nostri Conventus *Litterarum* in manibus R. P. = *Episcopi et a. Capituli* curam Communitate et fidelibus, sua vota temporalia emisit his verbis:

Vota mea Domino reddam, in conspectu omnis populi ejus, in atriis domus Domini.

Profesaren agiria

sinatutako agiria dugu⁹. Filosofiako bigarren ikasturtean 9 ikasle izan ziren gelan, eta denek gainditu zituzten azterketak 1923ko ekainaren 26an¹⁰. Hirugarren ikasturtean beste ikasle bat batu zitzaion, aurreko ikasturtea gainditu ez, eta urtea errepikatu egin behar izan zuen bat; ikasturte horretako ikasle guztiek gainditu zituzten azterketak 1925eko uztailaren 3an¹¹, gainerako bi kurtsoetako ikasleen artean 4k kurtsoa gainditu ez bazuten ere. Garai hartan ez zen notarik ematen, eta ikasleek ikasturte amaieran gai edo ez-gai kalifikazioa baino ez zuten jasotzen. Guk gaur egun ezagutzen ditugun notak edo emaitzak 1932an hasi ziren ematen¹².

Filosofiako ikasketak amaitu ondoren, Emiliano, kurtsoko gainerako ikasleekin batera, Begoñako Karmeldarren komunitara aldatu zen, teologiako lau urteko ikasketak egitera.

Teologiako lehenengo kurtsoan bederatzi ikasle izan ziren gelan, eta aztertzaileen irizpideen arabera bederatziek gainditu zuten ikasturtea; aztertzaileen artean, besteak beste, Jesusen Bihotzaren Aita Ezekiel probintziala eta Aita Domingo San Millan priorea¹³ zeuden. Bigarren ikasturtean (1926-1927) zortzi izan ziren ikasleak, eta hirugarrenean (1927-1928) sei. *Liber studentium* izeneko liburuan ez da ageri ikasleek laugarren ikasturtean lortutako kalifikazioei buruzko aipamenik.

1928an, Aita Emilianoren bizitzan eragin handia izan zuen gertaera bat gertatu zen, hain zuzen ere, Emiliano gaztea apaiz egitea. Gazteizen, hiri horretako katedralean sagaratu zuen apaiz 1928ko irailaren 22an Mateo Mujica gotzainak¹⁴. Ageriko

⁹ GPKA, *Liber studentium*.

¹⁰ GPKA, *Liber studentium*.

¹¹ GPKA, *Liber studentium*.

¹² GPKA, *Liber studentium* (hurrengo ordezkio zenbakiak zituela: 10: Suma cum laude. 9: Magna cum laude. 8: Cum laude. 7: Bene approbatus. 6: Approbatus. 5: Aegre approbatus. 4: Suspensus).

¹³ GPKA, *Liber studentium*.

¹⁴ MKA, A-V-10 (dok. originala).

lehen meza, astebete geroago, irailaren 29an eskaini zuen Apotzagan, herriko festetan. Ospakizun horretan Bilboko ar-



Begoñako Karmelo

tzapeza zen Ramon de Galbarriatu izan zuen alboan eta sermoia bertako semea zen Familia Santuaren Aita Doroteo karmeldarrak egin zuen.

4. KOMENTUEIAN EGIN ZITUEN JARDUERAK:

Alesbes, Iruñea, Markina.

Aita Emilianok bizitzan zehar Karmeldarren artean bete zuen zeregin nagusia karmeldar ikasleen irakasle eta komunitateko nagusiorde izatea izan zen. Huts egiteko beldurrik gabe bizitza osoan horretan eta irakasle lanetan eman zuela esan daiteke.

a. Alesbes

Ikasketetako laugarren ikasturteko azterketak amaitutakoan, Karmeldarren Aita Probintzialak, Jesusen Bihotzaren Aita Atanasiok, Kolonbiarako destinoa eman zioz hitzez. Baina, pa-



Alesbes-eko parrokia eta komentua (Nafarroa)

perak prestatzen ari zirela, Aita Probintzialak Nafarroako Alesbes herriko ikastetxeko humanitateetako irakasle izendatu zuen 1929ko uztailaren 22an¹⁵. Ikastetxe horretan etxeko nagusiordea eta organo-jolea ere izan zen.

b. Iruñea

Baina, 1934an hil arte etengabeki egingo zuen beste zeregin bati ekin zion, hain zuen ere, karmeldarren ikastetxeetako ikasleen arduradun izateari; eta horrek berez ekarri ohi zuen ikastetxeko nagusiorde izateari. Horrela, Aita Probintzialak bi agiri bidali zizkion 1934ko abuztuaren 17an, bata, Iruñako ikastetxeko musika-irakasle izendatzen zuena, eta, bigarrena, komunitate horretako nagusiorde izendatzen zuena¹⁶. Garai horretan, Iruñeko ikastetxean filosofiako (Logika, Historia Naturala, Grekoa, Geologia eta Musika) lehen ikasturtea egiten

¹⁵ MKA, A-V-10 (dok. originala).

¹⁶ MKA, A-V-10 (dok. originalak).

zen. Iruñako ikastetxeko musika-irakasle lanetan eta nagusiordearen karguan jardun zuen 1942. urtera arte.



Iruñeako Karmeldarren komentua

Gerra garaia eta gerraosteko lehendabiziko urteak Iruñean egin zituen. Aita Emilianok oso gutxitan hitz egin nahi izaten zuen garai horri buruz, oso une gogorak bizi izan zituelako. Aipamen batzuk egin zituen, gerraosteko ideologia zela eta, komentuarien barruan ere jasan izan ziren injustiziei buruz.


Ohar autobiografiko batzuk idatzi zituen, irribarrea eragiteko estiloan, bere “pareatu” edo biko errimatu ezagunen bidez¹⁷. Horietan soldaduak komentura itzuli direla aipatzen du, baita komentuarien barruan urte oso gutxiren buruan gertatutako aldaketak ere:

c. Markina.

1942an Kapitulua probintziala egin zen Begoñan. Eta aldaketa nabarmenak gertatu ziren. Sei urtez kartzela izan ondoren,

¹⁷ MKA, Aita Emilianoren karpetak; 13. karp.

Begoñako ikastetxea libre geratu zen, aparteko jarduerarik gabe, eta Begoñako Karmelo berrito teologiako ikasleen etxea izendatu zuten. Hala ere, gerrako gorabeherengatik Markinako Karmengo komentua ere teologiako ikastetxe izendatua izan zenez, Aita Emiliano ikastetxe horretara bidali zuten irakasle eta ikasleen arduradun izateko. Iruñean zegoela Jesus Haurraren Erredentore Probintzialaren agiri bidezko izendape-na jaso zuen 1942ko maiatzaren 1ean¹⁸; data bereko beste agiri bat ere jaso zuen, Markinako etxeko nagusiorde izendatzen zuena¹⁹. Eta aste batzuk geroago, maiatzaren 23an, hain zuzen ere, Markinan zegoen. Lau hilabete geroago beste agiri bat jasoko zuen, abuztuaren 19koa, ikastetxeko eliz musikaren irakasle izendatzen zuena²⁰.



Markinako Karmengo komentua

¹⁸ MKA, A-V-10 (dok. originala).

¹⁹ MKA, A-V-10 (dok. originala).

²⁰ MKA, A-V-10 (dok. originala).

Aita Emiliano berak ematen digu 1942ko ekainaren 6ko gutunean destino berriaren berri Aita Akiliori idatzitako gutun batean. Bertan egoera oso ezberdinari aurre egin beharra zuela eta Iruñean hainbat adiskide uztea benetan sentitu zuela esaten dio:

“Mi carísimo P. Aquilino: Le supongo para esta fecha enterado de mi nuevo destino. Como puede ver por el membrete de la carta me encuentro en este rincón de Vizcaya que se llama Marquina, luchando, si hasta ahora ha sido con filósofos primerizos, con teólogos, que están ya de vuelta..... Hace quince días llegé a este mi destino. He estado en Amorebieta haciendo unos diez días de santos ejercicios. Tengo 30 colegiales entre Padres, Diáconos y Subdiáconos. El día 28 de éste se ordenan en Vitoria siete de Padres y todos los demás de diáconos. El próximo lunes día 8 tenemos los exámenes de fin de curso, para los que tienen que venir de los distintos conventos otros diez Padres que han pasado parte del año fuera del colegio. Esto es muy distinto de Pamplona. No sabe lo que sentí el verme precisado a salir de aquel convento, dejando tantos y tan buenos amigos que nos habíamos hecho por allí”²¹.

5. MARKINA, AITA EMILIANOREN JARDUEREN GUNE NAGUSIA

Aita Emiliano karmeldarren Markinako Karmengo etxera etorri zenean, komentu hori aparteko garrantzirik gabeko etxe bat baino ez zen. Hala ere, aurrerantzean bertan bizi izan zenez, ez zaigu gaizki etorriko, labur-labur bada ere, etxe horren historia-ibilbideko zertzelada nagusiak gogora ekartzea.


a. Markinako komentua.

Markinako Karmeldarren komentua 1691n sortu eta ofizialki 1699ko Ordenako Kapitulu Jeneralak onetsitako etxea dugu. Lan pastorean, bereziki herrietan sermoiak egiten jarduten

²¹ GPKA, Biográfikoak: Barandiaran, Emiliano.

zuen etxea zen. Nahiko erlijioso talde handia bizi zen. Horrela, esaterako 1777an, 24 apaiz eta 6 anaia ageri dira bertan.

Frantziako iraultzaren ondoren frantsesak Espainiara sartu zirenean lehen aldiz kanporatu zituzten bertako fraideak (1808-1814) eta etxea kuartel bihurtu. 1813an berreskuratu zu-



Markina-Xemein 1960. urte inguruan

J. A. A. T.

Nos, Fr. Amalio a Sto. Aloysio O., Provincialis
Carmelitarum Discalceatorum Provinciae Sti. Joachin Sa-
vartae

Dilecto Nobis in Christo, P. Fr. *Amiliano A....*
Fuero Jesu....., hujus nostrae Provinciae sacer-
doti professo, salutem in Domino sempiternam.

Cum Ven. Definitorium N. Provincialis, in sessione
2^a, habita die 19 Julii 1945, Te in Directorem Musicae
Sacrae pro Collegio N. *Marquineri*..... designaverit,
Nos, praesentium tenore, praefatam designationem con-
firmamus; precamurque Divinam Bonitatem ut Te in omni-
bus adjuvare et ad majorem sui nominis gloriam dirigere
dignetur.

In quorum fidem, praecedentes dedimus, manu nostra sub-
scriptas, ex Aula Definitorii N. Provincialis, die 20
Julii 1945, in Conventu N. Victoriensi.



Fr. Amalio a S. Aloysio
Provis.

Fr. Theodorinus a S. Paulina
Sec. Gen.

Musikako maisu agiria

ten komentua. Hala ere karlisten gerrak eta beste zenbait gertakari tarteko zela 1839an berriro kanporatuak izan ziren Madrileko gobernuak 1835eko uztailen eta 1836ko martxoan emandako dekretuen ondorioz.

Hala ere, Markinako udalak eta fraideen herriko nahiz herri-
tik kanpoko beste zenbait adiskidek, bereziki Candido Gaytan
de Ayala jaunak lagundurik 1868.eko abuztuaren 14an berriro
bertaratu ziren fraideak. Data hori Karmeldar Teresiarren histo-
riako datarik garrantzitsuenetarikoa, batez ere, Iberiar Penintsula
osoko Karmelo osoarena, egin-eginean ere, Markinari eta histo-
rian zehar Karmeldar jarduerak edo ekintzak izandako gertakari
bati, karmeldarren berreraikuntzari lotuta dagoelako. Markinan
hasi eta desamortizazioaren eraginez hutsik geratutako hainbat
komentu berreskuratzeko bide izan zen²².

Urte latzak igaro ondoren, -ez dezagun ahaztu Karlisten ge-
rrak bizi-bizirik daudela- bizitza sendoa lortu zuten, eta bertara
etorritako gazte askorekin itxaropen handia sortu, bai
Markinan, bai Erroman. Markinako Karmeldar talde berri ho-
rrek lortu zuen, hainbatean, Aita Santuagandik Karmeldar
Teresiarren batasuna (1875-II-12) Aita Jeneral baten gidaritza-
pean (ordurarte bi zeuden: bata Madrilén, Espainiarako, eta
bestea Erroman, gainerako nazioetarako). Orduantxe hasi ziren
Markinatik fundazio berriak egiten: Larrea (1876), Avila (1876),
Desierto de las Palmas, Castellón (1876), Burgos (1877),
Segovia (1877), Alba de Tormes (1878), Begoñako Karmelo
(1880), La Habana (1880)²³, eta abar.

- Ikastetxea

Markinako komentu hori berreskuratu zenean, nobiziotzako
zereginetarako erabiltzeaz gainera erlijioso gazteen ikastetxe
ere bihurtu zen. Horrela Berreraikuntza hasi, eta lau urteren
buruan (1872. urtearen hasieran) 40 gazte onartu zituzten no-

²² *Karmeldarrak Markinan*, 132-169.

²³ *Karmeldarrak Markinan*, 172-239.

biziotza egiteko²⁴. Profesio egin berrien akten arabera²⁵ honako datuak ditugu: 1870-1875 urteetan 31 gaztek egin zituzten botuak: 6k 1870ean, 10ek 1871ean; 7k 1872an; 1ek 1873an; 4k 1874an eta 3k 1875ean.

Iberiar pensinsulan ez egoanez beste Karmeldarren komenturik, Markinako Karmen filosofiako (1871-1885, 1895-1896) ta teologiako (1874-1888, 1893-1894, 1937-1946) ikastetxe ere izan zen. Hala ere, Markinako etxea, aurrerantzean, batez ere profesia berrien ikastetxea izan zen,

Ikastetxea zelako, beti egoten zen fraile kopuru handia etxe horretan. Bestalde, ez zuen inoiz pastoral-lana alde batera utzi eta herririk herri hitzaldiak ematen eta abadeei laguntzen ere jarraitu zuen eta lan zabal hori egiteko ere jende prestatua behar izaten zen. Aita Emiliano bertara etorri zenean eta bere garaian ere sermoilari iaioak bizi ziren bertan.

- Misio-zentroa

Gobernuak Berreraikuntzarako baimena ematerakoan, Ameriketako Kolonietako misio lurrek zuten beharizanetarako apaiz erlijiosoak prestatzeko eman zuen. 1876an bertan, bertako fraileak asko izan eta fundazio berri bat egiteko ahaleginek huts egin eta gero, Aita Pedro Josek eskutitz bat bidali zion erregeari, “la necesidad urgente en interés de la religión y del Estado de enviar misioneros a sus diócesis” gogoratuz²⁶. Azkenean, nahiko tirabira izan ondoren onartu egin zuen gobernuak eskaria, batez ere Gasteizko gotzainaren iritzian oinarrituta, honako zioen eta: “que el establecimiento de un colegio de Carmelitas en Larrea dependiente del de Marquina será de mucha utilidad para las misiones de Ultramar”²⁷.

²⁴ Ik. *Correspondencia...*, 287. zk. Aita Pedro Josek Gaytan Kondeari 1872-I-26an eginiko gutuna.

²⁵ MKA, A-VII-1: *Liber Professionum Votorum Simplicium*.

²⁶ MAHN, Ultramar, leg. 1934 (Exped. 540), (8-X-1876).

²⁷ MAHN, Ultramar, leg. 1934 (Exped. 540), (16-I-1877).

Agiri horietan ikus dezakegu nola erakunde zibilek gero eta garrantzia handiagoa ematen dioten batez ere "misiolari" izateko norabidean bideratutako erlijiosoen heziketari. Interesgarria da, beraz, Markinako gazteei "itsasoz haraindiko misioetara" joateko heziketa ematen zitzaizela aipatzea. Hala eta guztiz ere, lehen misiolariak Indiara bidali ziren, lur horietara bidaltzeko premiak eta Erroman horretarako jasotako eskariek eraginda.

Markinako karmeldarren komunitatea handitzen zihoala eta bokazio ugari zituela ikusirik, laster jo zuten bertara Erromako agintariekin laguntza eske. Garai horretan Indiako misioen krisialdia hasi zen, hara joateko jenderik ez zegoelako. Horrela, Lucas de S. Juan de la Cruz Aita Jeneralak, "Fedearen Zabalkunderako Kongregazioak eskatuta"²⁸, Markinako nagusi zen Pedro José de Jesús María Aitagana jo zuen jende eske, eta honek prest zituela Indiako misioetara bidaltzeko hiru erlijioso erantzun zion²⁹. Egia esan, hiru erlijioso horiek prest zeuden edozein misiotara joateko. Honako hauek ziren: Aita Buenaventura de S. Francisco, 36 urtekoa³⁰, eta beste biak, Aita Elías de S. José³¹ eta P. Eliseo del Sagrado Corazón de Jesús 35 urtekoak³². Otsailaren lehenengo egunetan Indiara joan ziran Genovatik³³, eta Bombay-tik bidaia oso ona egin zutela eta oso pozik eta gogo handiz zihardutela jakinaraziz³⁴ idatzi zuten

²⁸ *Correspondencia*, nº 636 (6-VI-1877).

²⁹ KTAOR, sec. C, plút. 379, 7 A (5-V-1877).

³⁰ Buenaventura de S. Francisco (Aboitiz Aramburu), Bizkaiko Nabarnizkoa (7-V-1841), 1873-X-13an hartu zuen abitua eta 1874-X-14an egin botoak (cf. IKA, A-VII-2: *Vestitiones habitus, 1869-1899*, MKA, A-VII-1: *Liber professionum votorum simplicium*).

³¹ Elías de S. José (Elorriaga Orbegozo), Bizkaiko Munguiakoa (6-V-1852); botoak 1872-VIII-17an egin zituen: cf. MKA, A-VII-1: *Liber professionum votorum simplicium*).

³² Eliseo del Sagrado Corazón de Jesús (Cunnado), Burgosko elizbarrutiko Presencio-koa zen (28-XI-1852); 1872-II-12an egin zituen botoak (cf. MKA, A-VII-1: *Liber professionum votorum simplicium*).

³³ KTAOR, sec. C, plút. 379, 7 A; KTAOR, sec. C, plút. 379, 7 A (22-II-1878).

³⁴ KTAOR, sec. C, plút. 379, 7 A (Carta del P. Pedro José al P. General, 2-IV-1878).

Erromara. Hiru misiolari hauetatik bik ebanjelizatze lanetan jardun izan zuten parroketan eta misio-zentroetan eta batek irakasle lanetan Verapoliko seminarioan.

Bost urte geroago, 1882-1883. urtean beste hamaika misiolari joan ziren Indiara, euren artean Verapolyko artzapezpiku izango zan Aita Bernardo de Jesús³⁵. Aita Bernardo 1882ko maiatzean Markinako nagusi aukeratu zuten eta teologiako lehen lektore ere bai; Burgosetik etorria zen eta ordura arte filosofiako lektore lanetan ibilia zen. Hain estimatuak ziren bi irakasle, Aita Bernardo de Jesus eta Domingo de la SS. Trinidad misiolari Indiara joateak zirrara izugarria egin zuen Markinako ikasle teologoen artean; hauen artean zegoen geroago apostolu handi eta misiolari sutsua izango zen Aita Juan Bizente agurgarria³⁶.

b. Aita Emiliano Markinako profesia egin berrien maisu (1948-1966)

Gorago aipatu dugu Aita Emiliano 1942an bidali zutela Markinara, eta aurrerantzean han bizi izan zela. Markinako etxe hori profesia egin berrientzako heziketa-etxea zen, beraz 1948tik aurrera zeregin horretan jardun izan zuen 1966. urtean ikastetxea itxi zen arte. Profesia egin berrien maisu izate horrek, berez zekarren etxeko nagusiordea izatea. Beraz urte guzti horietan etxeko nagusiorde ere izan zen.

Jarraiko lerroetan komentatu horretan bizi izaten zuten bizi-moduaren berriak jasoko ditugu, bere eguneroko bizitzaren nondik norakoak jakitera emateko.

³⁵ Bernardo de Jesús (Arguinzoniz Astobiza), Bizkaiko Amorebietakoa zen (26-V-1852); botoak 1869-XI-23an egin zituen. (cf. LKA, A-VII-2: *Vestitiones habitus*, 1869-1899; LKA, A-VII-1: *Susceptio habitus. Vota simplicia*, 1869-1891; MKA, A-VII-1: *Liber professionum votorum simplicium*).

³⁶ Misio-lan honi buruzko berriak begiratu: Julen URKIZA, *Marquina, "Restauración" mistonera. Nuevo espíritu apostólico y misional*, Monte Carmelo 110 (2002) 263-342.

- Ikastetxearen datu batzuk: ordutegia, ikasgaiak eta irakasleak

1946an Markina batxilergoko azken urteak egiten zituzten ikasle profesia egin berrien ikastetxe izendatu ondoren, zeregin horretarako erabili zen hurrengo hamarkadetan zehar. Ikastetxeko musika sakratuaren irakasle izateaz gainera, aszetika eta mistikako irakasle ere izendatu zuten³⁷. Bestalde, esan dugun bezala, A. Emiliano profesia egin berrien edo ikasleen arduradun izan zen ia-ia bere bizitzaren azken egunetara arte (1948-1966). Gogoan izan 1948.etik 1968.era arteko urteetan, 286 karmeldar ikasle gazte iragan ziren Markinatik³⁸.

Azken garai horretako hainbat ordutegi eta egutegi ditugu, baina urte edo ikasturte batzuetakoak baino ez ditut hemen jasoko, urterik urteko ordutegi eta egitarauen errepikapenik gerta ez dadin. Horrela, esaterako, 1960. urteko eguneroko ordutegiaren edo lanaren egunetakoa, honelakoa zen:

5,40	Jaikitzeako ordua
6	Eliz Orduak erreztatzea
6,30	Gogamenezko otoitza eta komentu-meza
7,30	Profesioa egin berrien meza
9,45	Lehen eskola
11,45	Bigarren eskola
12,50	Kontzientzi azterketa
13	Bazkaria, jolasaldia, ikustaldia Sakramentu Santuari...
14,30	Bazkalondoko atsedonaldia
15,30	Bezperak erreztatzea
17	Hirugarren eskola
17,45	Ikasleen jolasaldia
18,15	Otoitzerako gertatzea

³⁷ MKA, A-V-10 (dok. originala).

³⁸ Ik. MKA, A-XV-1: *Colegio de Marquina: notas correspondientes a los exámenes de fin de curso.*

18,30	Gogamenezko otoitzaldia
19,30	Arratseko otoitza, Maitinak eta Gorespenak
21,15	Afaria, kontzientzi azterketa, etab.
22	Oherako ordua ³⁹ .



Karmengo biblioteka



Gure arteraino heldu diren eskuizkribuetan, gerra osteko 19 urte edo ikasturteetan zehar aztertuak izan zirenen eta ikasi zituzten ikasgaien izenak ageri zaizkigu; berri gutxiago ditugu, ordea, gerra aurreko lau ikastaroei (1911-1915) bu-

³⁹ Ik. GPKA, Markina 3, *Domus Professorum Marquinae, horarium comunitatis et collegii 1960*.

ruz. Ezaugarri gisa, 1962-1963. ikasturteko datuak biltzen ditugu hona⁴⁰:

Urte hartako etxeko nagusia, Aita Jenaro de la Sagrada Familia zen eta ikasleen maisua Aita Emiliano. Hauek izan ziren azterketetan ageri diren ikasgaiak:

1. *Latina*, 5 ordu astero; irakaslea Pedro Anakabe (Aita Gabriel). Latinezko idazketa eta konposaketa-ariketak egiten ziren eta gramatika ikasten.
2. *Idazketa eta estiloa gaztelera bizkuntzan*, bi ordu astero; irakaslea Aita Migel Mari; Garcia Matak argitaratutako liburua erabiltzen zen.
3. *Literaturaren historia*, bi ordu astero; irakaslea Aita Migel Mari; Díaz Plajaren liburua erabiltzen zen.
4. *Grekoa*, bi ordu astero; irakaslea: Aita Emiliano.
5. *Euskara*, bi ordu astero; irakaslea: Aita Migel Mari; Zabala Aranaren gramatika aztertzen zen eta euskal literaturari begirada ematen zitzaion.
6. *Frantsesa*, ordubete astero; irakaslea: Aita Emiliano.
7. *Ordenako legeria*, bi ordu astero; irakaslea: Pedro Anakabe (Aita Gabriel).
8. *Aszetika*, ordubete astero; irakaslea: Aita Migel Mari; Aita Aurelianoren testu-liburua erabiltzen zuen.
9. *Musika*, ordubete; irakaslea: Aita Emiliano.

Eskolorduak: 10, 11,50 eta 17etan izaten ziren.

- Etxeko bizitza ikasleekin

Aurkeztu dugun komunitatearen eta ikastetxearen ordutegiak profesia egin berrien bizimoduaren ibilbidea ematen digu

⁴⁰ Ik. GPKA, Markina-3, *Domus professorum Marquinae. Kalendarium scholae pro anno academico 1962-1963*.

aditzera. Bertan bi ardatz garrantzitsu ageri dira: otoitza eta ikasketa. Oinarrizko bi alde hauek elkar loturik dihardute, tar-teka-marteka beste kultur eta jolas jardueri lekua eginez; batez ere jai handietan nabarmentzen zen hori, esaterako Gabonetan, priorearen urtebete egunean, kultur edo literatur emanaldiak egiten zirenean.

Aita Emilianok komentuko halako emanaldi bat baino gehiago gorde zuen, hala nola, Santo Tomas egunean 1935ean Iruñean emandakoa. Markinan eskainitakoak gehiago dira eta hemen gogora ekarri nahi ditugu. Karmeldar ikasleek Aita Emiliano maisuaren urtebete egunean, hau da, martxoaren 9an antzeztutakoak dira. Emanaldi horiek elebidunak izaten ziren, gaztelaniaz eta euskaraz; inoizka beste hizkuntza batzuk ere erabiltzen ziren, esaterako, portugesa, frantsesa, latina, grekoa, etab... Hurrengo hauek kontserbatzen dira:

- 1) 1960ko emanaldia: "con la música a otro parte" izenburua duena.
- 2) 1961ko emanaldia: "Desconcierto en clave de cariño".
- 3) 1962-1963): "Concierto desconcertado".
- 4) 1963an, emanaldia bidali zioten aurreko urtean (1961-1962) Markinan egondako Gasteizeko karmeldar gazteek.
- 5) 1964ko emanaldia.

Gabon jaiak aparteko ospakizunak izaten ziren; bizitasun handiko meza nagusia eta abestiak zenbait ahotsetara eskainiz. Horrek aurreko asteetan saioak egin eta kantuak ikastea ekartzen zuen. Egun gogoangarria izaten zen, baita ere, Familia Santuaren eguna, Erregeen osteko hirugarren igandea. Egun horretan Aita Emilianok etxeko zoko ezkutu batean ume Jesus txikitxo bat (hatz txikiaren tamainakoa) ostentzen zuen eta aurkitzen zuenak sari berezi bat jasotzen.

Aita Emilianok arreta handiz gertatzen zuen liturgia eta aparteko zera agertzen zuen kantu gregoriarako: biguntasun handiz, buru eta bihotz kantatzea nahi izaten zuen. Horrela,



Erretaula nagusia eta alboko erretaulak

berak prestatzen eta zuzentzen zuen karmeldar gazteen koroak kantu gregorianoa aparteko edertasunez kantatzea lortzen zuen. Hutsik egin gabe prestatzen ziren igande bakoitzeko liturgia-kantuak.

Aparteko eskua erakusten zuen ikasleen akatsak zuzentzeko orduan ere; era atseginez eta erdi barrezka, baina huts egin gabe jakinarazten zizkion bakoitzaren bere akatsak edo hutsegiteak. Bazuen horretarako bere-berea zen era bat, hain zuzen ere Karmeldarren Probintzia osoan ezagunak egin ziren "biko errimatu" ospetsuak. Horrela jarduten zuen batez ere Erregeen egunean, oparien ondoan bakoitzari berarentzat beren beregi eginiko biko errimatuak eskainiz.

"Ezkerreko eskua" ongi zekiela erabiltzen ematen digute aditzera hainbat lekukok. Batek honako hau diosku: "...Yo, de mi parte, no guardo más que preciosos recuerdo del Padre. Le conocí ya en Villafranca de profesor y entonces nos llamaba la atención su seriedad nunca repulsiva sino muy de hombre. Y donde pude apreciar mejor sus cualidades de buen Superior fue en ese inolvidable Marquina de la postguerra, donde casi con

miedo vino a ejercer el mando difícil de Superior sobre una treintena de excombatientes. A pesar de ser nosotros una partida de jóvenes curtidos, no fue el P. Emiliano una simple figura decorativa de Superior sino que con una prudencia envidiable nos supo llevar de maravilla a través de los últimos años de carrera. Estoy seguro que nos conocía a todos sin fallarle un detalle. Pero tenía la sabiduría de callarse y de aguardar"⁴¹.


Esan bezala, bada, Aita Emilianok ikasle bakoitzari zegozkion bertsoak eskainiz adierazten zion bere iritzia eta bere ustetan zituen akatsen berri eman. Horrela inor mindu gabe, zer zuzendu behar zuen bere ibilbidean gogoratzen zion.

Markinako Karmengo artxiboan honelako hainbat "biko errimatu" ikus ditzakegu. Beraren bizitza "biko errimatuetan" kontatuz idatzitako koaderno bat ere utzi zigun. Gaztelaniaz biko errimatuetan idatzitako autobiografia horretan hainbat datu eskaintzen dizkigu: beraren erlijio-bizitzako unerik garrantzitsuak, hau da, bizi izan zen etxe ezberdinetako gorabeherak, asti-ezak sortutako eragozpenak eta abar... Hala ere, egiten zituen euskaraz ere bertsoak, erritmo eta neurketari zegokionez ohiko euskal formak zainduz eta errespetatuz; hauek erlijioso euskaltzaleen urtebete eguna ospatzeko egin ohi zituen, gehien bat.

- *Karmeldarrek Aita Emilianori eskainitako omenaldia: 1966*


Hain zuzen ere, etenik gabe 32 urtetan zehar (1934-1966) nagusiorde eta ikasleen maisu zereginetan egindako urte guzti horiek zirela eta, hainbatek uste izan zuten merezi zuela Aita Emilianok esker onezko ospakizuna. Markinako nagusi zen Aita Migel Marik garai hartan probintzial berria zen Aita Fidel Sarriegiri (1966) Aita Emilianori bizitzan zehar egindako lana eskertzeko ageriko egintza bat egitea proposatu zion; Aita pro-

⁴¹ BOPSJN 5 (1968, 70. zk.) 548.



bintzialak atseginez jaso zuen proposamena eta arazoa bideratzeko agindu zion⁴².

Isilpean hasi zen lanean Aita Migel Mari, Aita Emilianok ezer jakin ez zezan. Beraren ikasle izandako guztiei inprimaki



⁴² BOPSJN 6 (1966, 66.zk.) 342-343.

bat bidali zien omenaldian parte hartzera gonbidatuz eta oroitzapenen bat bidaltzeko eskatuz. Oso erantzun zabala jaso zuen ekimenak eta album eder bat osotu zuen¹³. Bertan hainbat gutun eta argazki ageri dira; Paulo VI Aita Santuaren bedeinkapena, Atanasio Aita Jeneralaren zorion-gutuna, Erroman Definitore Jeneral zen Aita Hipolito Larrakoetxearen gutuna, Aita Fidel probintzialaren eta Lekumberri gotzainaren gutunak, etab... Egin-eginean ere, Karmeldarren Probintziako alde guztietatik (Amerika, India, Afrika, Italia, Portugal, Austria, eta abarretik) jasotako oroitzapenak eta esker-idazkiak, euskaraz nahiz gaztelaniaz.

Aita Probintzialak, Fidel Sarriegik euskaraz idatzitako esku-titza barririk jarriko dogu hemen:

"Aita Emiliano maite-maitea.



Aita Fidel, probintziala

Zenbat urte joan diran, ta zenbat gauza gertatu diran, nik zu 1933'garren urtean Villafranca'an lenengo aldiz ikusi ta ezagutu zindutanetik! Andik negarrez atera ziñanean, an nintzan. Iruña'tik, maia-tzaren zortzian, ateratzerakoan, neuk lagundu nizun estazio-bidean.

Ta gaur, 32 urtean, gure Probintziko Ikastetxeetan, eten gabe gure gazteen ardura erabilli ondoren, lan ori utzitzerakoan, Jaungoikoak ala nai izan-da, Probintzi'ko buru naukazu.

¹³ MKA, A-V-11.

Danok ikusi degu zein benetan bete izan dezun zure egitekoa; danok dakigu ez dala ez atsegiña, ez erreza, lan ori; Jaungoikoak bakarrik daki zenbat kosta zaizun.

Nere ta Probintzi osoaren izenean, MILLA ESKER ta Jaungoikoak ordaindu dizaizula Berak dakian ta Berak bakarrik al-dezakean neurrian.

A. Fidel”.

Eta Markinako Karmenen egin zitzaion maitasunezko omenaldia 1966ko abuztuaren 11n izan zen. Hasiera ustekabeko bidez hasi zen. Komunitatearen eta Aita Emilianoren adiskide minak ziren Ansola anaia txistulari ospetsuek, inork uste ez zuela, txistu eta danbolin hotsean esnatu zituzten etxeko erlijiosoak.

Eguerdian hainbeste erlijioso sartzeko lekuz txiki geratu zen ikastetxeko kaperan meza santua. Jarraian albuma eman zitzaion. Aita Emilianok eskerrak ematerakoan Markinako ikastetxean bizi izandako bere bizitzako une garrantzitsu batzuk gogoratu zituen.

Jarraian, bazkaria, musika, ikasleen kantuak eta abar luzea. Aita Emilianok merezitako omenaldia jaso zuen. Geroago Aita Emilianok gutun bat bidali zuen Probintziako Buletinera omenaldi horretan parte hartu zuten guztiei bere eskerrona agertu eta eskerrik beroenak emanez⁴⁴.

c. Organoa berreskuratzea.

Aita Emiliano organista bikaina izan zen Aita Jose Domingok gogoratzen duenez. Batez ere aparteko trebezia zuen kantu gregorianoari laguntzeko. Eta bihotz erdian arantza zorrotz bat zuen organoaren egoera ikusiz, gerran oso kaltetu-

⁴⁴ BOPSJN 6 (1966, 66.zk.) 343-344

ta geratu zelako bonbardatze baten ondorioz. Eta gaitza sendatzeko aterabidea aurkitu zuen.

Esan dugu Aita Emiliano 1928ko irailaren 22an sagaratu zutela apaiz. Horrela, bada, 1953. urtean bere apaizegitearen 25. urtea ospatzen zuen. Bere adiskide ziren Ansola anaiek eta kantari-taldeak

(1953-IX-27) zorion beroak bidali zizkieten gutun interesgarri batean ageri den bezala. Aita Emilianok, oster,

ospakizun horrek eskaintzen zion abagunea erabili zuen Markinako Karmengo organoa konpontzeko. Komunitateak ez zuenez horretarako nahiko diru, probintzia barruan eta munduan zehar sakabanaturik aurkitzen ziren bere ikasle ohi guztiei gutun bana bidali zien bizi zeneko komunitatea Markinako Karmengo organoa konpontzeko dirua ematera bultzatzeko eskatuz. Eta hori, bidalitako gutunean ageri denez, urte pare bat lehenago, hau da, 1951ean egin zuen⁴⁵. Erantzun azkarra eta zabala jaso zuen, eta 70.000 pezetako aurrekontuari oso erraz aurre egin ahal izan zion, benetako gastua, azkenean, 90.000 pezetakoa izan zen arren. Aita Emilianok, Aita Migel Mariren



⁴⁵ MKA, A-XVIII-2/4.

esku finaren laguntzaz laguntza eman zioten 104 eskuzabalen izenak jasotzen zituen “ohorezko koadroa” egin zuen; ia gehienak euskal probintziako karmeldarrak, batez ere, Ameriketara aurkitzen zirenak izan ziren⁴⁶.

Aita Emilianok berak idatzi zuen idazlan bat organoaren berrietaketa eta inaugurazio-egintzari buruz. Batez ere laguntza eman ziotenei, hain zuzen ere, organoa berreskuratzea ahalbiderratu zuten guztiei eskerrak emateko izan zen⁴⁷. Idazlan horretan organoaren historia labur bat egin zuen.

Organoa, mekaniko izatetik elektro-pneumatiko izatera aldatu zuten 1929an. Baina gerrak hondatutako hainbat gauzen arteko bat izan zen. Askatzea, garbitzea, berriztatzea, handitzea



1953an: Bere apaizgoaren 25. urtean

⁴⁶ MKA, A-XVIII-2/9. Begiratu, era berean, komentuetako kronikak: A-II-1^a, pp. 39-43.

⁴⁷ EMILIANO DEL N. JESUS, *Renovación e inauguración del órgano*, BOPSJN 3 (1958, 37.zk.) 233-236.

eta berriro jartzea eta birdoitzea Walcker etxeak Espainian zuen Juan Braun teknikari eta organogileak egin zituen ardura handiz. Egintzen programan irakur daitekeenez organoa Bernardino del Niño Jesús Aita Probintzialak bedeinkatu zuen eta inauguraziorako kontzertua Jose Manuel Azcue organista ospetsuak eman zuen 1957ko uztailaren 18an⁴⁸.

Aita Emilianoren apaiz-egitearen 25. urtea (1953) ospatzeko emanaldi bat gertatu zuten ikasle profesia egin berriek beraren ohoretan. Amaieran hitzaldi oso interesgarria egin zuen berak, poesia, musika, eta artea goraipatuz: "Y como músico no soy enemigo sino de estridencias. De estridencias que son falta de armonía y por lo mismo desdican de toda obra de arte, de toda música y por lo tanto de la poesía"⁴⁹.

d. Musika arloko jardura

Musikari eta musikaren literatur idazle gisa eginiko musika eta literatur lanak geroago aztertzeke utziz, hemen herrian bai txistuarekin bai kornuarekin egin zuen musika arloko jardura aipatu nahi da:

- Musika maisua: tituluak

Karrerako urteetan zehar eta apaiz-jardueraren lehen urteetan organoa eta kantua ikasten zein praktikatzen egindako lanaz gainera, Aita Emilianok aparteko arduraz landu zuen musika erlijiosoa, zehazkiago esanda, kantu gregorianoa.

Kantu gregorianoa hiru ikasturte egin zituen: gregorianoari buruzko ikasketen lehen ziurtagiria 1953-1954. ikasturtekoa da; Goi Eskolako zuzendariak Aita Emilianori Gregorianoari buruzko Ikasketen Ziurtagirien diploma eman zion "oso ongi" kalifikazioa lortu zuelarik. Agiriak honako data du: "Madrid, 30

⁴⁸ MKA, A-XVIII-2/8. Begiratu, era berean, komentuetako kronikak: A-II-1^a, pp. 37-43.

⁴⁹ MKA, Aita Emilianoren karpetak; 9/12. karp..

de julio de 1954” eta Tomas de Manzarra jaunaren sinadura⁵⁰. Aita Emiliano lan bat egin zuen eta Manzarra jaunak 1954ko otsailaren 27an erantzun zion postal baten bidez “Su análisis gregoriano está muy bien hecho. Le felicito”⁵¹. Hurrengo ikasturtea (1954-1955) ere egin zuen Pariseko Institutu Gregorianoaren menpeko zen “Escuela Superior de Música Sagrada, facultad de Canto Gregoriano zeritzanean, 8 puntuko “oso ongi” kalifikazioa lortuz. Agiria 1955ko uztailaren 31koa da⁵². Eta hurrengo urtean (1955-1956) “Kantu gregorianoan maisua” (Magister Chori) titulua lortu zuen 8,50 puntuko “oso ongi” kalifikazioa jarri ziotelarik. Agiri hau ere Madrilén 1956ko uztailaren 31an sinatutako dago⁵³.

Aita Jose Domingo musikari handiak ere jakintsutzat jotzen zuen Aita Emiliano, arlo honetan erakusten zuen zaletasuna eta jakituria goratuz: “Pienso que su principal vocación fue la música. Sintió predilección especial por la música gregoriana. Había estudiado el canto gregoriano a perfección”⁵⁴.

- Musika jarduera eta produkzioa

Aita Emiliano Markinan ageri da 1942ko maiatzaren 23an. Hasieratik izan zuen lan ugari musika alorrean. Abenduan zenbait musika-paper bidali zizkion Aita Akiliori denborarik ez zuelako edo azalpen-gutunik idatzi gabe. Eta ironia edo txantxa erabiliz geroago honako hau esango zion: “Esperaría seguramente le acompañase alguna carta mía. No fue posible entonces, porque también yo he andado esta temporada muy agobiado de ensayos, pues como podrá ver por el adjunto

⁵⁰ MKA, A-V-10 (dok. originala). Tomás de Manzarra, Igorreko semea, klaretziarra, musikaria, Madrilén 1953an *Escuela Superior de Música Sagrada* sortu zuena.

⁵¹ MKA, Aita Emilianoaren karpetak: 1. karp.

⁵² MKA, A-V-10 (dok. originala).

⁵³ MKA, A-V-10 (dok. originala).

⁵⁴ JOSÉ DOMINGO UGARTECHEA DE STA. TERESA, *In memoriam del P. Emiliano del Niño Jesús. O.C.D.*, Txistulari (1968, 53.zb.) 7.

programa Marquina no ha querido quedar atrás en la serie interminable de homenajes al Santo Padre, y hemos organizado los actos indicados, amenizados con una decena de cantos los más selectos, con lo que esperamos lucimos más que los monsieurs con sus conferencias. Le incluyo también el programa de Vitoria, para que vea que no es mucho más lo que se hace en las grandes capitales que en este nuestro villorrio, por más que gasten mucho papel en los programas"⁵⁵.

1944ko lehenengo hiletan "Karmengo Hirugarren Ordenakoen Espainiako Kongresu Nagusia" prestatzen ari ziren, horretarako Karmengo Hirugarren Ordenakoen ereserki ofiziala egiteko lehiaketa antolatu zelarik. Sei aurkeztu ziren, beraietatik lau Euskal herriko karmeldarren probintziakoak (Aita Bautista, Aita José Domingo, Aita Emiliano, eta Aita Javier) zirela; beste biak, bata Valentziakoa eta, bestea, Madrilekoa. Azken bi hauek berehala baztertu zituzten, aukeraketa euskal probintziako erlijioso musikarien artean egin behar izan zelarik. Bernardino del Niño Jesus Aitak Aita Emilianori idatzi zizkion gutunetatik honen ereserkia oso ongi hartua izan zela dakigu⁵⁶. Estatuko Batzak, baina, mahaiko musikarien iritzia jarraituz Iruñeko komentuan bizi zen Bautista de S. Jose Aitaren ereserkia aukeratu zuten honako hau ziotela: "Es popular, sencillo, muy bien armonizado, y tiene también una estrofa que pueden cantarla voces de hombre o de mujer y es muy sentida"⁵⁷.

Jadanik 1954. urtean txisturako konposaketak aztertzen ari zen. Ansola txistulari ospetsuekin zuen adiskidetasunak Aita Emilianok haientzat piezak idaztea ekarri zuen. Txistu eta

⁵⁵ GPKA, Biográficas, Barandiaran, A. Emilianok A. Akillinori 1942-XII-15ean eginiko gutuna.

⁵⁶ MKA, Aita Emilianoren karpetak, 1. karp.: otsailaren 10 eta 18ko eta martxoaren 11ko gutunak.

⁵⁷ MKA, Aita Emilianoren karpetak, 1. karp.: 44-III-2an Batzako idazkariak Aita Emilianori bidalitako gutuna.

Silboterako musika obra den “Nire andrea” konposatu zuen. Eta izen handiko txistularia eta musika-obren egilea zen Isidro Ansorena jaunari bidali zion, bere iritzia eskatuz. Ansorenak 1946ko otsailaren 11n erantzun zion⁵⁸.

Zerbait geroxeago “Or konpon” txisturako musika obra bidali zion. 1945ean konposatu zuen. Ansorena jaunak, batetik, men-

*A mis carísimos amigos Hnos. Ansola, componentes del afamado
Grupo de Txistularis de Marquina.*

“OR KONPON..!”

Sobre melodías del Cancionero Vasco

*P. Emiliano del Niño Jesús
(Carmelita Ansolaga)*

PRELUDIO - Maestoso

The musical score is for a prelude titled "OR KONPON..!" in a Maestoso tempo. It is written for four instruments: Txistu I, Txistu II, Silbote, and Atabal. The key signature has two flats (B-flat and E-flat), and the time signature is 3/4. The score is divided into three systems. The first system shows the initial entries of the instruments, with dynamics marked as *pp* (pianissimo) for the txistu and silbote, and *pp* for the atabal. The second system continues the development, with the txistu and silbote playing *f* (forte) and the atabal *pp*. The third system concludes the prelude with a final *f* (forte) dynamic for the txistu and silbote, and *f* for the atabal.

⁵⁸ MKA, Aita Emilianoren karpetak, 1. Karp.

peratzeko zaila zela "un tanto difícil para ser dominada" zela erantzun zion; eta, bestetik, goraiatu egiten zuen Aita Emilianoren lana honako hau esanez: "La verdad sea dicha, a pesar de haber escrito yo muchas obritas para chistu, debo confesar sinceramente que no me siento capaz para poder escribir en la forma que utiliza en su comienzo el cual para ser escuchado en un local propio suena muy finamente siempre que se pueda ejecutar en forma ajustada, pues cada ejecutante tiene su trabajito, y si existe alguna debilidad entre los componentes queda enseguida al descubierto, por cuya razón estimo que [si] lo que busca el amigo Ansola esto es, obra difícil de ejecutar, ya lo ha conseguido con Or konpon!" eta amaitzerako ironiaz beste hau esan: "diga al Sr. Ansola que ya tiene una buena obra para hacer trabajar a toda la banda en su estudio si pretende presentarla bien dominada"⁵⁹. Egin-eginean ere, Aita Emilianok obra hori Ansola anaiei eskaini zien "A mis carísimos amigos H^{os} Ansola componentes del afamado grupo de txistularis de Markina". Anaiek lehen aldiz 1947an aurkeztu zuten Zumarragan, 1968an argitaratuko zen *Txistulari* aldizkarian.

Obra hau 1981eko azaroaren 8an Bilbon izan zen Txistularien txapelketan jo zuen Butroiko bandak. Txapelketa hartan parte hartu zutenek, bestalde, nahitaez interpretatzeko obratzat Aita Emilianoren beste bat jarri zuten, hots, "Urrundik". Txapelketa Donostiko Txistularien udal bandak irabazi zuen⁶⁰.

-Bi lan bandi txisturako

1.-J. S. Bach musikari ospetsuaren "Toccata eta Fuga re txikian". Aita Emilianok obra hau txisturako transkribatu zuen. Ansola anaiei eskaini zien obra eta hauek Bilboko Hareatzan interpretatu zuten, kritikoen artean polemika bizia sortuz.

⁵⁹ MKA, Aita Emilianoren karpetak; 1. karp.: 1946-VII-27ko gutuna.

⁶⁰ Ik. *Deia*, 1981-XI-10.

Bidezkoa ote zen organorako eginiko lan bat txisturako egokitzea?

Aita Jose Domingok zenbait berrikuntza guztiz onartu ez arren, lotsatia izan arren Aita Emiliano bide berriak urratsen egindako lan hori goraipatzen du honako hau dioenean: “El P. Emiliano era excesivamente tímido en achaques de composición, para seguir el camino de los modernistas; y a pesar de



Aita Emiliano eta Aita Jose Domingo

ello, tengo que confesar, que él fue el primero que se lanzó a modernizar el txistu con las obras clásicas. Casi todos los músicos le criticaron por su atrevimiento”⁶¹. Jose Domingok, hala ere, Bach-en Toccata ez dela txistuz jotzekoa uste du; hori baino zerbait gehiago edo dela: “creo sin embargo, que la Fuga, según está adaptada para los txistus, se presta algo más. El trabajo realizado merece respeto y admiración”... “Este nuestro instrumento, que es de escasos recursos, no puede tener, sobre todo en las notas altas, la flexibilidad y precisión de otros instrumentos de viento, como la flauta”.

⁶¹ JOSÉ DOMINGO UGARTECHEA DE STA. TERESA, *In memoriam del P. Emiliano del Niño Jesús. O.C.D.*, Txistulari (1968, 53.zb.) 8.

Baina izan zen bere alde egin, zorionak eman, eta animoak eman zizkionik ere. Horrela egin zuen txistu eta euskal musikaren zale amorratua zen Sandalio de Tejada jaunak Caracasetik. Honako hau idatzi zion 1960ko irailaren 25ean: "Al ver en el programa del concierto de Bilbao que por primera vez se ejecutaba con txistus una obra de música clásica, me he alegrado sobremanera, porque desde hace tiempo venía pensando en que esto debía hacerse para elevar la educación musical de nuestros músicos populares. Felicito a Vd. Por haber puesto la primera piedra en este aspecto; espero que tenga imitadores"...⁶²

Hilabete pare bat geroago, 1960eko abenduaren 9an, berriro idatzi zion Sandalio de Tejada jaunak: "El 27 del pasado mes escribí un artículo sobre 'El Avance del Txistu' en que definiendo su posición de traer a la flauta de tres agujeros a los grandes maestros: Mozart, Beethoven, Grieg, Schubert, etc., recordando el concierto de Bilbao"...⁶³

2.- Beethoven-en *Seigarren sinfonia fa nagusian (Pastorala)*. Jatorriko partitura, lapitzez idatzita Markinako Karmengo artxihoan aurkitzen da. Julian Ansolak kopia on bat egin eta amaiera eman zion obrari, orrialde pare bat falta zituen eta. Aita Emilianok horretarako ausardia Sandalio de Tejada jaunak eman ziola dio honako hau erantsiz: "las mil y una razones aducidas tratando de probar como descabellada su propuesta, no le convencieron; ni paró en sus pesquisas hasta agenciar y poner en nuestras manos, no sólo un hermoso disco de larga duración, sino también la partitura completa para orquesta de la indicada sinfonía"⁶⁴.

Aita Emilianok honela egokitu zuen sinfonia hau txistuetarako: bi(2) txirula; lau(4) 1. txistu; lau(4) 2. txistu; lau(4) 1. silbote; lau(4) 2. silbote; eta bi(2) atabal; guztira: 20 partehartzaile.

⁶² Ibid., 8.or.

⁶³ MKA, Aita Emilianoren karpetak; 1. karp.

⁶⁴ JOSÉ DOMINGO UGARTECHEA DE STA. TERESA, *In memoriam del P. Emiliano del Niño Jesús. O.C.D., Txistulari* (1968, 53.zb.) 8.

Aita Jose Domingoren iritziz, J.S. Bach-en "re notako Toccata eta Fuga" egokitzerakoan arrakastarik lortu ez bazuen ere, handia lortu zuen Beethoven-en seigarren sinfonia egokitzerakoan. Eta honako hau dio: "De esta adaptación están excluidos los defectos señalados en la de la Toccata y Fuga, de Bach. Se desenvuelven las melodías en el ámbito normal de cada instrumento, y ni siquiera la ejecución de las melodías requiere un extraordinario esfuerzo. Por ello, merecen aplausos el autor (G.B.) y el señor D. Sandalio de Tejada, que fue el promotor de la atrevida empresa"⁶⁵.

- Kantu gregorianoa eta euskarako egokitzapenak.

Aita Emilianok aparteko sena zuen kantu gregorianoa interpretatzeko eta ezin zuen euskarara "itzuli" edo egokitu gabe utzi. Trebetasun handia zuen euskarako letra kantu gregorianora egokitzeko, merezimendu handiko obrak egin zituela. Horretaz



1962-1963ko ikasturtea, Ambrosio gotzaiarekin

⁶⁵ Ibid., 8.or.

ere argibide esanguratsuak eskaintzen dizkigu Aita Jose Domingo musikariak: "realizó en este sentido una labor digna de todo encomio"⁹⁶. Eta jarraian hurrengo hau dio: "Para mí merece especial mención la que hizo para la Misa Dominator Deus, XV del Kyrial Vaticano. Está tan bien aplicado el texto euskérico a la melodía gregoriana que me atrevo a afirmar que no desmerece nada del latín, lengua propia del canto gregoriano. ¿Exageración? Esta adaptación la hizo también a las melodías vascas, y ¡con qué acierto! ¡con qué flexibilidad!"



• Karmengo tipleak

Eta horren adierazgarri nagusitzat 1965ean argitaratu eta go-raipamen handiak jaso zituen zuen *Euskal Meza* aipatzen du. Aita Jose Domingorentzat aplikazio bikainak egiten zituen *Kredoaz* gainera "Erruki, Jauna", "Sanctus" eta "Agnus" kantuetan. Honako hau eranstean du: "Sobre todo me atrevo -sin exa-

⁹⁶ Ibid., 7. or.

geraciones- a calificar de maravillosa dicha adaptación en el "et incarnatus est"... Eta "Espiritu Santuaren"..."⁶⁷.

- Musika-jarduera Markinako herrian

Markinako herrian txistu mugimendu bat nabari zen, batez ere Ansola anaiek egindako jarduera ederrari esker. Aita Emiliano Markinara etorri zenean adiskide minak egin ziren. Eta beraiekin lankidetzan jardun izan zuen txistuari bultzada ematen, beraientzat obrak sortuz, eta esan den bezala klasiko-en obrak egokituz...



Aita Emilianoren musika jarduera ez zen karmeldarren ikas-tetxera eta elizara mugatzen, bertako organista eta koru-zuzentzailea izatean musikaren erabilera goi mailara jaso bazuen ere. Markinako ume eta gaztetxoekin lan egiten ere hasi eta jardun izan zuen.

⁶⁷ Ibid., 7.or.



Solfeoa irakasten hasi zen. Eta urteetan zehar iraungo zuen musika akademia bat (1956) sortu zuen. Horri buruzko berri zehatzagoak Karmel honetako beste lan batetan eskainiko dira. Seguruenik musika irakasteko jarduera honi loturik prestatu zuen euskaraz liburutxo bat argitaratzeko, hain zuzen ere, ale honen amaieran argitaratzen dugun "Eresi-ikasbidea" (Barandiaran) dar



Santa
Eufemian

Emiliano'k egiña. Markina'n - 1960'n). Hala ere argitaratu gabe geratu zen. Solfeoa eta kantua euskaraz irakatsi nahi zituen. Gure ustetan, bera izan zen honetan lehen bidegilea.

1959. urtearen inguruan haur txistularien banda bat sortu zuen. Eta urte batzuk geroago neskena.

e. Komentuko kronista, eta agiri grafikoen biltzailea.

Komentuko kronikek ez dute jasotzen noiz etorri zen Aita Emiliano Markinako komentura. Baina kronika horietan aztar-na garbiak utzi zituen, berak idatzi zituelako komentuko gertakari nagusien berriak 1954-1958 eta 1960-1961. urteetan zehar.

Baina zerik bitxiena, behar bada, erlijiosoen, komentuko biltzako gorabeheren (kultur arlokoen nahiz erlijiosoen), egiten ziren txangoen nahiz senitartekoen eta adiskideen argazkiak bildu eta gordetzen jartzen zuen ardura dugu. Aparteko balioa du lehenengo Iruñean eta gero, batez ere Markinan, 32 urtetan zehar ikasle izan zituen taldeei ateratako argazkien bildumak. Baina ez zituen ikasle eta komunitateko kideen taldekako argazkiak biltzen bakarrik. Erlijioso bakoitzarenak ere jaso zituen, argazkiaren ondoan nori zegokion zehazteko izenak jarritz.

Guztira host album dira eta horietarik lauk aparteko balio historiko dute. Aita Emiliano ehundaka eta ehundaka argazki interesgarri bildu eta arduraz gordetze horretan argi erakusten du bere bihotzaren sentiberatasuna; erakutsi ere, idazle eta musikari zereginetan ere etorkizunaren aurrean erakutsi zuen sentiberatasun maila berean⁶⁸.

6. IDAZLE ETA MUSIKARI

Euskal gizartean Aita Emiliano, euskal idazle eta musikari zereginetan egindako lana dela eta nabarmendu zen. Bihotzez

⁶⁸ MKA, K, Argazkiak.

maite zuen euskara. Idazterakoan ardurua handia jartzen zuen egiturak egokiro jartzen, zuzentzen eta esaldiak txukun idazten eta eskaintzen. Hala ere, gaztelaniaz ere idatzi zuela esan behar da.

Gure eskura heldu den karpeta batetan euskal aditzaren joko osoa jasotzen duen koaderno bat dago. Isilean baina etxe-ko euskara lantzen ahalegindu zen, nahiko erraztasunez idaztera heldu zelarik. Horrela ageri da bere lehen liburua argitaratu ostean egin ziren iruzkinetan.

Nahiz eta aurreko lerroetan, bide batez izanda ere, Aita Emiliano idazlea izan zela aipatu, eta musika alorrean eginiko lana gehiago aztertu, hurrengo lerroetan argitara eman zituen liburuen eta argitaratu gabe utzitakoen berri emango dizuegu.

a. Idazlea: idazlanak.

Berrogeiko lehen hamarkadan batez ere musika-lanetan jardun izan bazuen ere, bigarren hamarkadan gehiago ekin zion literatura lana argitaratzeari, batez ere euskarazkoari, bai idazlan askeetan bai liburuetan; baina bere euskarazko idazlan gehienak 1935-1939 urteetan egin zituen.

Gerra aurretik beraren idazlan bat agertu zen *Karmengo Argian* 1934an eta, geroago, hainbat idazlan *Karmel* aldizkarian 1957-1961. urteen artean. *Olertin* ere parte hartu zuen.

Aldizkarietan argitaratzen zituen idazlanetan izenordeak erabiltzen zituen: *Olagoiti* (bere baserriaren izena), *Zapal*, *Julen* (Julian zan bere bataioko izena).

- **Lehen liburua:** Karmengo Amaren Eskapularioaren 7. mendeurrena (1251-1951) zela eta argitaratu zuen bere lehenengo liburua 1952n: *Andre Mari Euskaletxeriko mendietan*; 265 orrialdeko liburua da. Ohar bitxi modura 192 orrialdeko liburuen aurrekontua (2.000 alerena) 4.986 pezeta izan zela dakigu, Aita Emiliano paperak gorde zituelako. Liburua argitara-

tu ostean hainbat laudorio jaso zituen aldizkarietan nahiz egunkarietan bere estiloa eta idazteko era goraipatuz. Laudoriozko gutunak bidali zizkiotenen izenen artean honakoak agiri dira Markinako Karmengo artxiboan: Imanol Lekuona, Jose Eguino Trecu Santanderreko gotzaina, J. Wenceslao Mayora, José de Artetxe, Norbert Tauer...⁶⁹. Liburua 1952an argitaratu zen, baimenak 1951ekoak izanik; hala ere eskuizkribua hainbat urte lehenago, behar bada 1939. urtean idatzia izan zen. Mariari buruzko liburu hau, lehengo argitaratua izan arren, beste liburuen (*Andre Mari gaztediaren eskuetan* 1954an argitaratua, *Andre Mari gaztediaren eskuetan* eta *Andre Mari mirarietan*) azken zatia zen.

Antza denez, liburua ez zen liburu-dendetan salgai jarri hasiera batean, behinik behin (geroago bai, liburu-dendek eskatzen zioten adinean). Aita Emilianok berak hartu zuen hainbat lekutara bidaltzeko ardura; zeregin horretan adiskideen eta, bereziki, fraile-lagunen eta komentuen laguntza izan zuen. Beste hainbeste egin zuten bere senitarteko batzuk, liburua saltzen lagunduz. Garagartzako Santa Agedan gaixotegian zegoen Aita Akilino Arrasaten eta inguruetan saldu zuen. Aita Emilianok dio Gipuzkoako herrietan, Azkoitian eta inguruetan, eskean ibiltzen zen anaia batek bi astetan 124 liburu saldu zituela⁷⁰.

Egileak “Andre Marie Euskalerriko mendietan. Venta de ejemplares” koaderno bat zeukan. Bertan kontrolatzen zituen bidaltzen zituen aleak: horrela, esaterako, 100 ale Donostiako komentura, beste 10 Eibarrera, 150 Amorebietako bi etxeetara, 50 Begoñakora, 50 Altxokora eta beste asko pertsona partikularrei. Koaderno honetan 2.000 ale inguru saldu zituela ageri da. Gaur egun oraindik hirurehun bat ale aurkitzen dira Markinako Karmenen. Hori horrela, 3.000 ale atera zituela uste dugu. Aita Emilianok eskari-orriak ere gorde zituen⁷¹. Liburu-

⁶⁹ MKA, Aita Emilianoren karpetak; 12. karp.

⁷⁰ GPKA, Biografikoak, karp.: Barandiaran, Emiliano: 1952-XII-leko gutuna.

⁷¹ MKA, Aita Emilianoren karpetak; 26. karp.

dendetan 28 pezetatan saltzen zen eta komentuetan 23 pezeta-tan. Ikus daitekeenez liburuak harrera oso ona izan zuen.

- **Bigarren liburua:** bi urte geroago agertu zen; oraingoan ere gaia Andre Mariari buruzkoa zen. Baina prestatu zituen hiru liburuetatik lehena zen. Ez zen berak asmatutako liburua, gehien bat itzulpena zen. Gasteizen 1954. urtean argitaratutako 280 orritako liburu horrek honako izena dauka: *Andre Mari gaztediaren eskuetan. I. Atala*. Aita Emilianok liburu honen salmenta-datuak ere kontrolatu zituen aipatu dugun koaderno horretan. Datuen arabera 1.000 ale inguru saldu zituela ematen du. Hor-hemenka eginiko komentarioen arabera, liburu hauei argitaratzeko zituen bi liburukiak elkartzuz, Aita Emilianok euskarazko lehen mariologia oso samarra eskaintzen zuen. Idazkera zela eta ere goraipamenik ugari jaso zuen euskara oso txukunean eginda zegoelako. Liburuki honen eskuizkribua 1935-1937 urteen artean gertatu zuen; eskuizkribu horren hasiera honako hau ageri da eta: "Iruña'n, 1939ko V-ren 7'an"⁷².

Bigarren liburukia inprimategirako prest zeukan Aita Gregorio de Jesús Crucificado probintzialaren baimena (Vitoria, 12-I-1963), eta Aita Isidro de Guerra zentsore frantziskotarraren "nihil obstat" (Aranzazu, 7-III-1963), eta Donostiako elizbarrutiko Bikario Jeneralaren "imprimatur" (San Sebastián, 9-III-1963) zituela. Hiru aginen jatorriko sinadurak ageri dira. Liburuaren izenburua: *Andre Mari gaztediaren biotzetan*. Egileak egin zion sarrera laburrak 1965-III-25eko data dakar makinaz idatzita. Beraz, inprimategira bidaltzeko prest-prest. Ez dakigu zer dela eta ez zen argitaratu. Badirudi hiru urte geroago berriro ere argitaratzeko bidean edo izan zela Aita Emilianok boligrafoz sarrerako data, 1966-XII-25koa jarritz, aldatu egin zion eta⁷³. Argi dago liburua Gipuzkoan argitaratzeko zela, eta uste dugu zentsore lanetan Arantzazuko frantzis-

⁷² MKA, Aita Emilianoren karpetak; 29. karp.

⁷³ MKA, Aita Emilianoren karpetak; 27. karp.

kotarra agertzean hauek parte hartuko zutela argitalpen horretan.

Hirugarren liburukia, hau ere nahikoa prestatuta zeukana, *Andre Mari mirarietan* deituko zen⁷⁴.

- **Hirugarren argitalpena:** Arrateko Amari eskainitako 19 orrialdeko *Arrate'ko Ama Sortzez Garbiaren kondaira ta bederatzihurren laburra* liburuxka da. Bilbon argitaratu zen 1960an.

- **Azken argitaratutako liburua:** bere azken liburua, heriotza-urtean, 1967an, euskal musikariei, *Euskal musikarari bikaiñak* izena zuela, eskainitako 163 orrialdeko liburua izan zen. Liburu hau Zarautzen argitaratu zuen *Kuliska sortan*. Harritzekoa da hain berandu argitaratu izana, 1962rako amaituta, eta Ordenako zentsuraren baimena eskuratuta zeukan eta⁷⁵.

- **Heriotza osteko liburua:** Orain dela hamabi urte, Jon Gurutzekoaren mendeurrena zela eta, haren idazlan batzuk euskaraz eskaintzerakoan Aita Emilianoren itzulpen batzuk argitaratu ziren ortografia aldetik ukitu txiki batzuk eginda. Mistikan hain ospetsua eta literaturan klasikoa den Joan Gurutzeko Santuaren obren itzulpen hau izango da, behar bada, beraren lanik ederrena. Gaia, bera, zer esanik ez oso sakona. Bertan, *Kantu espiritual* (*Cántico Espiritual*) eta *Maitasun-gar bizia* (*Llama de amor viva*) eskaintzen zaizkigu. *Kantika espiritual* itzultzerakoan, bestalde, bertsoak ere egin behar izan zituen. Ez ziren santuaren testu guztiak argitaratu, lagin ugaria baino. (JOAN GURUTZETZEOA, *Idazlan aulatuak*, Vitoria, 1992, 360 or.; Aita Luis Arostegik argitaratua). Argitalpen honetan, Jon Gurutzekoaren lan hautatuena izatean, atal batzuk, erdiak bano gehiago, argitaratu barik geratu ziren.


⁷⁴ MKA, Aita Emilianoren karpeta; 28. karp.

⁷⁵ GPKA, Biografikoak, karpeta: Barandiaran, Emiliano: Aita Lino Akesoloren 1962-XII-31ko txostena.

-Argitaratu gabeko obrak:

Beste obra batzuen eskuizkribuak Markinako Karmengo artxiboan gordetzen dira.

1. Andre Mariari eskainitako aipatu ditugun bi obrak: *Andre Mari gaztediaren biotzetan* eta *Andre Mari mirarietan*.
2. Gurutzeko Joan santuaren *Gogo abestia* [*Kantu espiritual*] (*Cántico Espiritual*) eta *Maitasun-gar bizia* (*Llama de amor viva*) eskaintzen zaizkigu (Erdia baino gehiago argitaratu barik).



3. *Gogo-izpiak*. Gar-Mar jesuitaren *Sugerencias* liburu ospetsuaren itzulpena (*Gar-Mar'en Sugerencias euskeratua - I. Atala*). Gaztelaniazko liburuak 546 orrialde ditu.

4. Luis Evelyn abataren *Gizon hori zeu zara: Barandiaran'dar Aita Emilianok euskeraratua*. Gaztelaniazko argitalpenak 207 orrialde ditu.
5. Aita Teodosiok eginiko *Ese tesoro que llevamos dentro* liburuaren itzulpena: *Barnean eskutatzen dugun balioa (Sendi Deunaren Aita Teososo'k erdaraz egiña, ta Barandiaran'dar Aita Emiliano'k euskarara itzulia)*. 64 orrialdeko liburuxka da.
6. *Eresi-ikasbidea. Barandiaran-dar Emiliano'k egiña. Markina'n - 1960'n* (31. Karp.). Liburu hau inprimategirako prest zegoen baina ez zen argitaratu. Karmel aldizkari honetan argitaratzen dugu Aita Emilianori eskainitako omenaldi modura.
7. Badira Aita Emilianok idatzitako beste zenbait paper, koaderno eta zirriborro, bai gaztelaniaz bai euskaraz, Markinako Karmengo artxiboan. Ematen zituen hitzaldiak, jasotzen zituen apunteak, eta abar luzea. Hala ere, halakoen artean ezer nabarmentzekotan, 1949ko apirilean idatzi eta "*Kistar-biziera*" izenburua duen koaderno nabarmen daiteke⁷⁶.
8. Era berean, aipatzekoak dira Aita Emilianok eskuz idatzitako hainbat orri ere: egindako bidaiak, musika-asteak etab... Horrela: a) "Montserrat - 1947; b) "Escorial - Madrid", musikako kursilloa, 28-VII - 7-VIII-1950; c) Organua berriztea; d) "Lurdes'era", 1955; e) "Portugal'era", 1961; f) "Tarbes Lurdes 1963 (3-IX)"; g) Musika itzaldiak Iruñan, 28-VIII - 12-IX-1967; etc.⁷⁷.

Hain zuzen ere, euskaraz eginiko lan guzti hori goraipatuz *Euskaltzaindiak* diploma bat bidali zion Manuel Lekuona euskaltzainburuak sinatuta:

⁷⁶ MKA, Aita Emilianoren karpetak; 8/7 karp.

⁷⁷ MKA, Aita Emilianoren karpetak; 15. karp.

"Euskaltzaindiak Aita Emiliano Barandiaran euskararen alde orain arte egin dituen lanen esker-erakutsiz eta gerokoen pizkarri, laguntzailletzat artu du. Bilbaon 1965 iraillaren 27-an"⁷⁸.

Beste hainbeste egin zuen euskara bultzatzeko asmoz sortu berri zen Euskerazaleak 1967.eko abuztuaren 4ean Aita Emiliano hil baino lau hilabete lehenago, elkartearen erabakia honela jakinaraziz:

"Bizkai'ko Euskerazaleko lagunak, alde ortatik, beste barik Alkartasun onen bazkidetzat eukitea"...⁷⁹.

- "Biko errimatuak" gaztelaniaz eta "bertsoak".

Beraren gizatasuna eta ikasleen akatsak zuzentzeko estiloa, akats horiek eta eguneroko bizimodua biko errimatu alai bidez aditzera emateko ohitura paregabea zuen. Aita Emilianok biko errimatuz osoturiko 60 bat orrialde ditu, urterik urte kronologikoki ordenatuta. Zeregin honetarako bereziki Erregeen eguna, hau da, urtarrilaren 6a erabiltzen zuen⁸⁰. Baina estilo alai hau senitartekoekin ere erabiltzen zuen, esaterako Tarbes-en bizi ziren lehengusuekin. Horrela, adibidez, 1963ko urrian "*A su Señoría señora María*" izena dutela bidalitakoak.

Bazuen Aita Emilianok biko errimatuz beteriko beste koaderno txiki bat ere. Hain zuzen ere, Erregeen egunekoan antzerako edukia jasotzen duten 21 orrialdetakoak. Horien artean aparteko aipamena zor zaie bere autobiografia osotzen duten 16 orrietako biko errimatuei. Gaiak sarritan oso astunak izan arren, berarentzat gogorrak, hala nola Alesbesetik Iruñera joan beharra, Iruñetik Markinara aldatzea, edota komentuan gerra garaian izandako egoera larriak eta ondorioak, beti umorezko estiloan kontatuta ageri dira. Koaderno txiki honetan badaude euskaraz eginiko biko errimatu batzuk ere.⁸¹

⁷⁸ MKA, A-V-10 (dok. originala).

⁷⁹ MKA, A-V-10 (dok. originala).

⁸⁰ MKA, Aita Emilianoaren karpetak; 13. karp.

⁸¹ Ibid.

Idatzi zituen, baita, euskal bertsoak ere, gehienetan umorez beteak; hauetan euskal bertsoei dagokien estilo zuzena dabil. Gehienetan erlijiosoan, batez ere etxeko nagusien prioreen urtebete egunerako eginak izaten ziren; lagunei ere idazten zizkien bertsoak, adibidez Markinakoi. Janari osteko bertsoak dira, abesteko eta mahaikideek errepikapenak egiteko eran eginak. Honelako bertsoak jasotzen dituzten hainbat folio ditugu eta batzuk *Karmel* aldizkari honetan eskainiko ditugu.

Bihotz-bihotzez maite zuen euskara, eta gaztetatik hasi zen bertsoak euskaraz idazten; aurkitu dugun lehena, 22 bi urte zituela eta teologia ikasten ari zela, 1926-I-9an urtebete egunean Aita Txomini (Domingo de S. Millan) egindakoa da⁸².

b. Musikaria: lanak.

Gorago Markinan musika alorrean burutu zuen jarduera, eta era berezian txisturako egin zuen lan ugaria aipatu ditugu. Orain argitaratu zituen lan batzuk, batez ere liburuak, gogora ekarri gura ditugu.

Psallite sapienter. Compendio de música (Vitoria, 1955, XII+286 or.). Liburu erraz eta praktikoa hau Karmeldarren Aita Probintzialak Ordenako ikastetxeetan kantu liturgikoa eta batez ere kantu gregorianoa irakasteko eskatuta idatzi zuen. Musika sakratua sakontzen egindako urteen (1953-1955) burututako lanaren emaitza ederra dugula esan daiteke.

Ordenako ikastetxeetan testu gisa erabiltzeko musikako kompendium-a da; bertan 14 ikasmailetan zehar banatuta musika teoria figuratua eta gregoriano osoa biltzen zuen; horretaz gainera, bi gehigarri zituen, bata, organistentzat armoniako norabide batzuk jasotzen zituena, eta, bestea, Aita Santuek musika erlijiosoari buruz eginiko agiri garrantzitsuenak biltzen zituena.

⁸² MKA, Aita Emilianoren karpetak; 1. karp.

Jaungoiko - Erriarentzat

Euskal - Meza

Bizkaieraz eta Gipuzkeraz

(Abots batera bakarrik
naiz lau abotsetara kantatzekoa)

Egilea:

Barandiaran'dar A. Emiliano, K. O.

Talleres Gráficos ORDORICA
Muelle de la Merced, 5
BILBAO

Musika-jarduera handia burutu zuen Ordenako ikastetxeetan, hala nola Alesbeseen, Iruñean eta, bereziki, Markinan, bide batez eragin handia sortuz ikastetxeetan ere; kontuan hartu behar da karmeldar gazteen musika-heziketaren arduraduna eta koru zuzendaria izan zela bizi izan zen komentuetan, 40 urtetan zehar.

Liturgiarako egin eta argitaratu zituen musika lanen artean, Bilbon 1965ean argitaratu zuen *Euskal meza (Jaungoiko-Erriarentzat Euskal-Meza. Bizkaieraz eta Gipuzkeraz (Abots batera bakarrik naiz lau abotsetara kantatzekoa)* 28 orrialdeko lana dugu. Argitalpenaren hasieran honako eskaintza dator: "Musika-gaia Irakaslariei ezin ohea izan dodan Aita José Domingo Agurgarriari, biotz-biotzez".

Gorago aipatu dugu euskal musikariei eskaini zien beste liburua. Egin-eginean ere heriotzako urtean, 1967an, argitaratu zuena.

Gainerako musika-lanen, argitaratuen nahiz argitaratu gabekoen berri zehatzagoak izateko begiratu *Karmel* aldizkariaren ale honetan eskaintzen den beraren literatura eta musika lanen bibliografiara.

7. MUSIKARI ETA ERLIJIOSO ON BATEN HERIOTZA

Aita Emilianoren heriotza eguneroko bizitzan izan ohi zuen zerbitzuzko eta maitasunezko jardueraren berez-berezko amaiera edo izan zen. Familia eta erlijio maitasuna eta espirituzko bizitza sakona bizi izan zituen fraide on baten Gabon ospakizuna edo. Musikaz inguraturik, isilean, zaratarik gabe bizi izan zen, eta horrela hartu zuen heriotzak ere, espirituzko gomendio batzuk idazten zebilela.

Hain zuzen ere 1967ko abenduaren 13an, santa Luziaren egunean gertatu zen. Egun horretan, hainbat aldiz egin zuen

bezala komentutik oinez hiru edo lau minutuko distantziara dagoen moja karmeldarren etxera joan zen. Egun horretan euria egin zuen, indartsu eta haize zakarrez egin ere, mojen etxera goitik behera bustita heldu zen eta. Han betiko zeregina bete zuen, hots, bertako moja bati organoa joten, hobeto esanda koruan zuten armoniuma joten irakastea. Lokutorioan hotz handia egiten zuen eta oso bustita zegoenez azkenean guztiz "izoztuta" geratu zen. Egoera horretan etxerantz zihoala, bere adiskide minak ziren Ansola txistularien arrebak etxera sartzeko keinu egin zion. Emakumeak Aita Emiliano hotzak jota ikusi zuen eta berotzeko berogailu baten ondoan jarrarazi, abitua guztiz bustita zeukan eta; horrez gainera odoloste-salda ere eskaini zion barrutik berotzeko, eta hainbatetan egin zuen onera.


Gero komentura etorri eta eguneroko bizimodua egiten jarraitu zuen: otoitzaldia, bazkaria, arratsaldeko lehen orduko konpromisoak betetzea; eta gabonak ate-atean zirenez, bere senideei, kasu honetan Tarbeseko lehengusuei gutun bat frantsesez idazten hasi zen: "Mes très chers Jean Marie et... Mes meilleurs souhaits de bonheur pour vous dans ces fêtes de Noël, en priant auprès du berceau de l'Enfant Jésus pour vous et tous les vôtres; surtout pour votre petit Jean Louis. Qu'il soit aussi bon que l'Enfant Jésus, et que vous le soigniez comme le Très Sainte Vierge, que vous voyez dans cette image assise sur l'humbré âne, soigne-t-elle son petit Enfant Jésus"⁸³.

Irudi ederra fededunen batentzat Gabonetako zorionak emateko, Andre Mariak ume Jesus bezala Juan Luis txikia zaintzeko edota beraren Juan Luis semetxoa Jesus Haurraren antzekoa izan dadin otoitz egingo zuela esate hori.

Ordu batzuk geroago, arratsaldeko zazpiak inguruan Aita Jenaro sartu zen bere gelan eta hilda aurkitu zuen aulkian jazarrita burua mahai gainean zuela. Gutun bat maitasunez bere

⁸³ Markinako Karmengo artxiboan aurkitzen den testu hau Aita Jose Domingok argitaratu zuen: *In memoriam del P. Emiliano del Niño Jesús. O.C.D., Txistulari* (1968, 53.zb.) 6.

seniderik onenetarikoari idazten ziharduela hil zen. Bere biho-
tza geratu egin zen egitekoak egin zituela uste izanik.



Aita Emiliano
Luis Arostegirekin, gaur-
egun Orde-
nako gene-
rala, Gatikan
bere meza
berriko egu-
nean
(1965)

Izugarritzkoa izan zen komunitatean eta herrian sortu zuen harridura eta atsekabea. Gertatutakoaren berri berehala eman zieten senide, adiskide, karmeldar probintziako komentuetako fraide eta abarri.

Hiletak hurrengo egunean, hilaren 14an, izan ziren arratsaldeko bostetan Markinako Karmengo elizan. Markinako hainbat eta hainbat herritar eta inguru herrietako ugari bildu zen bertan. Meza handitasunez eta egokitasunez ospatu izan zen. Horrela kontatzen digu Aita Jose Domingo musikalaria, zirrarak jota: "¡Qué bien se hermanaban el gregoriano y la Misa en euskera! Nunca me pareció tan hermoso y tan sentido el canto de los trozos de Euskal-Meza del difunto presente; parecía que el P. Emiliano dirigía el nutrido coro de Carmelitas -entre los de la comunidad y religiosos de otros conventos llegaríamos a más de 60- y el pueblo que alternaba. Ofició la misa el P. Miguel María, Prior de la comunidad; y en el oficio de sepultura el P. Fidel, provincial de San Joaquín de Navarra"⁸⁴.

Hori izan zen Markinako herriak eta karmeldarren Nafarroako San Joakin Probintziako fraile lagunek mundu honetan eskaini zioten azken agurra eta, era berean, omenaldia. Hainbesteko arduraz zaindu ohi zuen Markinako komentuko ortu barruko fraileen kanpo santuan hilobiratu zuten.

Julen Urkiza/Patxi Uribarren

⁸⁴ Ibid., 7. or.